







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %4,8 egin zuen behera irailean, 2015. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %14,8 jaitsi zen; etxekoan, berriz, %2,3 igo zen eta zerbitzu arloan %10,2. Irail arteko kontsumo metatuak %5,9 egin zuen behera; 2015eko epealdi berarekin erkatuta; etxeko sektorean %5,6 jaitsi zen, industrian %8,2 eta zerbitzu arloan %1,3. Industrian gora egin zuten sektoreak, besteak beste, hauexek izan ziren: garraiobideen eraikuntza eta ontzigtintza (%9), burdinazkoa ez den metalurgia (%8,1) eta kautxuzko eratorriak (%5,8). Behera egin zutenak, ostera, siderurgia (%19,9) eta zementua (%2) izan ziren.

Gas naturala







Irailean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %15,9 egin zuen behera, 2015eko irailean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %51,7 jaitsi zen eta gainerako sektoreena %8,3. Irail arteko kontsumo metatuak %13,5 egin du behera, aurreko epealdiaren aldean, (%42,3 CCTT-n eta %7 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Abuztuan, garraioan erregaien kontsumoa %10,3 igo zen, 2015. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %3,8 egin zuen gora eta A gasolioarenak %11,2. Abuztu arteko kontsumo metatua %4,6 igo da, 2015eko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinen kontsumoak %1,8 egin zuen gora eta A gasolioarenak %4,9.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera








EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Irailean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 96,4 milioi kupel izan zen (2015eko irailean izandakoaren aldean, %1,2 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %0,1 egin zuen gora kontsumoak, 14,4 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %2,7 egin zuen gora, eta 11,9 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan %0,6 igo zen, eta 19,5 Mbpd kopuruan kokatu zen.
 Munduan, azken 6 hilabeteen, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,4 igo da, oro har, Txinan %3,7, AEBetan %0,4 eta Europar Batasunean %1,3.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %2,4 egin zuen gora irailean, 2015eko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Irailean bitartean izandako kontsumo metatuak %2,5 egin zuen behera. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen irailean, %6,7, 2015eko irailean izandakoaren aldean. Irailean bitartean izandako kontsumo metatuak %0,2 egin zuen behera.
 Espainian, abuztuan, errepideetan erregaien kontsumoak %6,3 egin zuen gora 2015eko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %6 igo zen eta gasolioena %6,4. Abuztura bitarteko kontsumo metatuak %3 egin zuen gora, 2015. urteko epealdiaren aldean, (%2,5 igo zen gasolinena eta %3,4 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %10,2 egin zuen gora abuztuan; abuztura bitarteko kontsumo metatua %7,3 igo zen, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta ElAren datuetan

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 46,2 \$ (41,8 €) izan zen irailean. Urte mugikorraren batez besteko prezioak %30 egin zuen behera (%27 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 43,6 €/MWh izan zen irailean; duela urtebetekoaren aldean, %16 egin zuen behera.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 14,2 €/MWh izan zen abuztuan, eta %32,8 jaitsi zen, 2015eko hil berean izandakoarekin erkatuta. Irailean, EGIX-en prezioa 15,4 €/MWh izan zen (2015eko irailean izandakoarekin alderatuta, %17,7 jaitsi zen).

Spot merkatuetan, irailean Henry Hub-en prezioa 9 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian, abuztuan, 16,4 €/MWh (2015eko hil horietan izandakoaren aldean, %12,3 egin zuen gora eta %30,3 egin zuen behera, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, abuztuan, gasolioaren prezioa 1 €/l izan zen (urtebetean %6,3 jaitsi da), eta gasolinarena 1,12 €/l (urtebetean %7,4 jaitsi da).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 4,2 €/t izan zen irailean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %47,8 egin du behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.